

EZKUTUAN

Gauza asko eskatzen dizkizut egunero, eta badakit ahal duzun neurrian nire nahaiak betetzen saiatzen zarela, baina oraingoan inoiz baino gehiago behar zaitut. Lagundu nazazu kontrol hau arazo barik pasatzen, nire herrikideek asko eskertuko dute eta. Argitxo gorri hori piztu eta zarataka hasten bada, nireak egin du.

Hartu beharreko prebentzio guztiak hartu ditut, eta oso ondo ezkutatuta daramadala uste dut, baina nork daki. Agian aireportuetako kontrolak izugarri aldatu dira eta orain urte batzuk posiblea bazen ere, oraingoan guztiz ezinezkoa izan daiteke. Segurtasun neurriak areagotu direla nabari dut azkenekoz duela zortzi urte hemen egon nintzenetik. Urduri nago, badakit, eta asko nabari zait. Aurretik hiru gizon trajeatu ditut eta ondoren nire txanda izango da. Berehala pasatzen ari dira negozio gizonak, eta nire urduritasunak proportzionalki egiten du gora.

Pantailatxoari begira dagoen poliziarri ez zaio oso adi ikusten. telebista programa bat ikusten egongo balitz bezala. Txanda aldaketa egiteko ajentea hurrunean ikusten dut eta, beraz, zerbait inprobisatu beharko dut oraindik kontrola ez pasatzeko. Zorroa jausten utzi dut eta boltsikoan nituen txanpon batzuk lurrera bota ditut. Berehala makurtu naiz eta gauzak batzeari ekin diot, begi batez ajentea bilatzen nagoen bitartean. Txanda galdu dut jada. Txanponak batu eta ilaran jarri naiz berriz ere. Ez dakit ondo kalkulatu dudana. Momentu honetan eserita zegoen polizia zutitu egin da eta hizketan dauden bitartean, eserlekua beste ajenteari uzten ari zaio. Zorroa sartu dut pasarelan. Atepetik pasatu naiz eta ez du zaratarik atera, baina nire zorroa zinta barruan dago oraindik. Lortu dut ia-ia.

Nola baina? Zinta gelditu egin da eta eserita zegoen polizia hurbiltzen ari da. Zorroan daramadana ikusi dute zihur, eta niregana datoz. Bihotza inoiz izan dudana pultsazio azkarrenetan doakit. Ez ba. Zinta blokeatu egin dela eta nire zorroa hartzeko besterik ez dit esan, eragozpenak parkatzeko eta aurrera jarraitzeko. Eragozpenak parkatzeko? Bihotzekoak emateko gutxi falta izan zait, baina eskerrak pasatu dudala. Lagun min batek pasatako informazioari esker lortu dut. Denbora askoz zelatan egon behar izan da informazio hori eskuratzeko. Bejon daiola!

32. atearen ondoan nago eserita, pixkanaka nire onera etortzen. Izerditan nagoela nabari dut. Ezin duzue imaginatu zenbat adrenalina askatu dudana. Oso legala izan naiz betidanik eta nire buruarentzat ezinezkoa izan da lasai mantentzea. Seme-alabak besterik ez ditut momentu honetan buruan. Beraien irudiek etengabe betetzen dute nire pentsamendua. Oso gogorra egingo zaie ni gabe egotea eta era berean, oso gogorra egingo zait niri beraiek gabe egotea. Dena den, beharrak bultzatzen nau, eta orain ezin dut atzera egin. Egunero nigan pentsatu eta errezatuko dutenaren esperantza daukat. Nik ere berdina egingo dut nagoen tokian egonda ere. Negartsu nabari ditut begiak, hunkituta nago. mukizapi bat atera dut poltsikotik eta begiak lehortu ondoren, alboan daukadan zakarrontzira bota dut. Hamar bat minutu besterik ez dira faltako hegazkinean sartzen hasteko. Pasatako tentsio eta urduritasunaren ondorioz laburra egin zait itxaronaldia.

Hegazkinera sartzen hasteko deitu gaituzte jada eta ni ilaran jartzen lehenengoetako naiz. pasaporte eta txartela erakutsi dizkiot laguntzaileetako bati eta hegazkin barrurantz abiatu naiz. Nire burua New York-en pentsatzen dago. Zenbat argazki, bideo eta irudi ikusi ditugun inoiz lorik egiten ez duen hiriari buruz. Inoiz egonda ere, denok daukagu noizbait bertan egon garenaren sentsazio aldrebes hori. Zeinen polita ikusten den irudietan, baina ezin dut zihurtatu existitzen denik, ez bainaiz sekula ere bertan egon.

Ez dut astuna izan nahi, baina urduritasunak nire gorputzeko atal guztiak bereganatu ditu. Larri nago, izerditan. Gainera erdiko eserlekua tokatu zait eta lehio ondoan dagoen andreak ez dit ezertxo ere ikusten uzten. Ezin izango dut jakin noiz gabiltzan New York gainetik pasatzen. Emakumeak lehioa guztiz itxi du eta berbaz ari zait. Beldur handia omen die hegazkinei eta gaizki pasatzen duela bidaietan, baina semea egun batzuk barru ezkontzekoa dela eta dena ongi prestatzen laguntzera zihoala. Nik, jaramon handirik egin gabe, tokiz aldatzeko eskatu diot, agian lehiotik gertu egoteagatik pasatzen zuela hain txarto argudiatuz. Bai, badakit, oso aitzakia txarra, baina nola edo hala lortu behar dut lehio ondoan esertzea. Andreak ezetz esan dit, lasai egoteko, hori ez dela berak gaizki pasatzearen arrazoa. Gainera, hitz egiteko norbait edukitzeak lasaitzen diola eta ez duela horren gaizki pasatzen. Nireak egin du, nahikoa daukat nirearekin eta orain emakume honek bere bizitza guztia kontatuko dit. Aireratu besterik ez gara egin eta botoia sakatzeko gogo izugarriak ditut jada.

Denborak aurrera darrai eta emakumeak bere horretan jarraitzen dut. Lokartzen nengoen jada eta berriz itzuli da niregana. Ez al da konturatzen ia lo nengoela? Benetan, botoia sakatzeko gutxi falta zait. Nire pazientzia agortzear dago, ezin dut gehiago emakume honekin. Pentsatzen nago, New Yorkeko eraikuntza erraldioetatik pasatzen gauden momentua itxaron baino, orain bertan botoia sakatu eta guztiarekin bukatzea. Zerbait somatzen ari da emakumea. Lasaitu egin behar naiz, ezin dut hainbeste hilabeteko lana alperririk galdu. Erabakirik onena botoia sakatzea dela pentsatzen jarraitzen du, baina egia esan oraindik ez dauka zentzurik. Ordu bete inguru geratzen zaigu iristeko eta beraz, ordu erdi inguru munduko skyline famatuena airetik ikusteko. Ordu erdi hau jasan behar dut. Nire gauzetan pentsatu, buruarekin, instintiboki emakumeari baietz esaten diodan bitartean. Hori besterik ez, eta dena berehala bukatuko da.

Ollsen andreari, horrela deitzen dela esan dit hiruzpalau aldiz, lehioa zabaltzeko eskatu diot, nondik gabiltzan ikusi nahi dudala. Berak, ordea, bere horretan darrai eta ez duela zabalduko esaten dit. Konbentzitzeko ahaleginetan nago, baina ezinezkoa dirudi. Orain bai, nire pazientzia agortu egin da. Botoia sakatuko dut, ezin dut gehiago jasan. Prest daukat botoia, eta halako batean Ollsen andreak lehioa zabaltzen du eta segundu batzuk uzten dizkit bertatik begiratzeko. Oso jatorra naizela esaten dit eta horegatik zabaldu didala. Utzi dizkidan bost segunduetan ez dut gauza handirik ikusteko aukerarik izan, baina nahikoa nire burua kokatzeko. Nola ez, hegazkinean dagoen burrunbaz lagunduta, skylinearen gainetik goaz. Hauxe da nire momentua, botoia sakatu behar dut. Agur Ollsen andrea.

Eskua jaso eta botoia sakatu dut. Segituan hegazkineko laguntzaile bat hurbiltzen zait eta ez naizela ondo sentitzen esaten diot. Berarengana zutitu eta hegazkin aurrealderantz narama eskutik helduta. Laguntzaileek dena prestatzen duten tokian nago behingoz. Leho handi bat daukate eurentzako. Orain bai, maitemindu egin naiz. New Yorkeko bistarik harrigarrienak dira hauek. Lehiora itsatsita daukat aurpegia. Bi minutu soilik izan dira, baina irudi horiek betirako gordeta egongo dira nire burmuinean. Neskatoa hurbiltzen zait ur baso eta pilula batekin. Hobeto nagoela esaten diot eta ur pixkat hartzen dut. Esertzeko esaten dit, lurra hartzera goazela, eta beraien eserlekuetan kokatzen nau. Oraindik ezin dut sinetsi. Espero dut arratsaldean anaiak eraikuntza horiek ikustera eramatea.

Maleta batu berri dut eta aireportu izugarri handi honetatik ateratzen nabil. Anaiak asko gozatuko ditu aireportuko kontrolean ozta-ozta pasa ditudan gazta, txorizo eta pernil zatiak, urteak daramatzalako probatu gabe, baina nik hegazkinaren lehiotik ikusitako irudiak, bizatzako plazer handienak hobetu eta gainditzen ditu.